

emakumeen TXOKOA



2025EKO UDAZKENEKO ESKAINTZA

Azpeitiko Emakumeen Txokoa emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ekipamendu publikoa da, mugimendu feministaren borrokaren emaitza. Babesleku segurua eta konfidentziala eskaintzeaz gain, askotariko jatorri eta kulturako emakumeak ahalduntzeko espazioa da.

Emakumeei beren trebetasunak eta laguntza-sareak indartzeko baliabide eta aukera ugari eskaintzen ditu, eta bizitza soziopolitikoan parte hartzea sustatzen du, ahotsak entzun eta baloratzen diren ingurune batean. Gainera, indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzuak eskaintzen ditu, erreparazioa bultzatzeko.

HARREMANETARAKO

Emakumeen Txokoa. Goiko kale, 12 behea.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera 09:00etatik 19:00etara eta ostiraletan 9:00etatik 13:00era.

Udako ordutegia (ekaina erdia eta uztaila): astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

emakumeen txokoa Parte hartuz,
denok irabazten dugu! Zatoz!

JARRAI GAITZAZU



[AzpeitikoEmakumeenTxokoa](#)



[@Etxokoa](#)



[@emakumetxokoa](#)



[Azpeitiko Emakumeen Txokoa](#)

PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ



ikastaroak eta tailerrak

AZPEITIKO JABETZE ESKOLAK (2025EKO UDAZKENA)

Azpeitiko Jabetze Eskolen helburua emakumeei beren burua eta beren bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea da. Maila pertsonalean eta kolektiboan indartzea bilatzen dugu, elkarrekin ikasi, errealitatea ikuspegi feminista batetik aztertu, eta gure parte-hartze soziopolitiko handitzen laguntzeko topagunea izan nahi dugu.

Prestakuntza zabala eta parte-hartzailea eskaintzen dugu, emakumeen proposamenetatik eta parekidetasuna sustatzeko lan-ildoetatik abiatuta.

Zu ere parte-hartzera animatzen zaitugu, elkarrekin jendarte parekideago eta bidezkoago baten bidea eraikitzeko!

IZEN EMATEA

Izena emateko epea

Irailaren 22tik urriaren 3ra

Non izena eman?

Azpeitiko Emakumeen Txokoa. Goiko Kale, 12 behe.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko moduak

Izena emateko moduak: Emakumeen Txokoa zuzeneko harrera bidez, emailaz, WhatsApp-ez, Telegram-ez edo telefonoz. Izen-ematea orria bete beharko da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoa eskatu edo esku orriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

1. **Plazak mugatuak dira**, eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:

- Azpeitian erroldatutakoek
- Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
- Azpeitian erroldatuta daudenek eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurretik parte hartu ez dutenek.

2. **Taldeak antolatze**ko, behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten emakume guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.

3. Behin taldea osatuta, ordainketa egin beharko da, eta dirua itzuliko da, soilik, ez-bertaratzea justifikatuta dagoenean.

4. Haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da: gutxienez, 3 ume baldin badaude. Zerbitzua behar izanez gero, aurretik, izena ematerakoan adierazi.

1. AUTOESTIMA: NIRE BURUA EZAGUTUZ

Ikastaro honek bizitzea zer den ulertzen lagunduko digu, hau da, gure bizitza jarriko dugu erdigunean, ditugun beharrak eta nahiak. Emakumeok askotan gure nahiak alde batera uzten ditugu eta besteen beharrak lehenesten ditugu, izan ere, barneratua dugu baliotsuak izateko besteen onarpena edota afektua behar ditugula. Tailerrean horri buruz hausnartuko dugu eta eraldaketa prozesu bati ekingo diogu: gure bizitza (gure beharrak eta nahiak) erdigunean jartzea. Gure indarguneak eta ezaugarriak ezagutuko ditugu eta autonomia, gaitasuna eta gure buruarenganako segurtasuna lortu.

Formatzailea: Pepa Bojó Ballester

Hizkuntza: Gaztelera

Noiz: Urriaren 14tik abenduaren 16ra

Ordutegia: Astearteetan, 17:30etik 19:30era

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

Iraupena: 10 saio, 20 ordu

Prezioa: 24€ Azpeitian erroldatutakoek / 29€ Azpeitian erroldatu gabekoek

2. BOXEO TAILERRA

Kirol gehienetan bezala, boxeoan ere genero auzia konpondu gabeko gaia da. Historikoki maskulinitateari lotutako kirol bat izanik, matxismoak oso errotuta jarraitzen du boxeoaren munduan. Horregatik, izaera tradizional horrekin hausteko emakume erreferenteak ezagutzeko eta boxeoaren inguruan dauden tabuekin amaitzeko tailerra izango da honakoa.

Formatzailea: Ixa Rodriguez

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Azaroak 22

Ordutegia: Larunbata, 10:00etatik 14:00etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoan

Iraupena: 4 ordu

Prezioa: 6,50€ Azpeitian erroldatutakoek /
8,2€ Azpeitian erroldatu gabekoek



JABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Herria eta P.K.	
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? ☐ BAI ☐ EZ

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Nola? ☐ Whatsapp ☐ Korreo elektronikoz

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

2025eko en (e)an

Sinadura:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

☐ 1. AUTOESTIMA: NIRE BURUA EZAGUTUZ

☐ 2. BOXEO TAILERRA

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? ☐ BAI ☐ EZ

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

ikastaroak eta tailerrak

AZPEITIKO BOTEREGABETZE ESKOLAK (2025EKO UDAZKENA)

Gizonentzako boteregabetze-eskolak genero-rol tradizionalei aurre egiteko guneak dira. Tailerrak eta eztabaidak eskaintzen dituzte, gizonak gizartean duten eginkizunari buruz hausnar dezaten eta genero-desberdintasunak zein indarkeria matxistak betikotzen dituzten portaerak desikas ditzaten. Gizon kontzienteagoak sortzea bilatzen dute, harreman parekideak eta indarkeriarik gabekoak sustatuz.

IZEN EMATEA

Izena emateko epea

Irailaren 22tik urriaren 3ra

Non izena eman?

Azpeitiko Emakumeen Txokoan. Goiko Kale, 12 behe.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko moduak

Emakumeen Txokoan zuzeneko harrera bidez, emailaz, WhatsApp-ez, Telegram-ez edo telefonoz. Izen emateko orria bete beharko da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoan eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- Plazak mugatuak dira**, eta ikastaroetan zein tallerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian erroldatutakoek
 - Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian erroldatuta daudenek eta Boteregabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurretik parte hartu ez dutenek.
- Taldeak antolatze**ko, behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten gizon guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
- Behin taldea osatuta, ordainketa egin beharko da, eta dirua itzuliko da, soilik, ez-bertaratzea justifikatuta dagoenean.
- Hautzaindegi-zerbitzua eskainiko da: gutxienez, 3 ume baldin badaude. Zerbitzua behar izanez gero, aurretik, izena ematerakoan adierazi.



1. BOTEREAREN AZTERKETA ETA HAUSNARKETA EGITEKO GIZONEN ESPAZIOA

Eguneroko gatazkak eta korapiloak elkarrekin partekatzeko eta eztabaidatzeko sortu da espazio hau. Gai zehatzak aztertu beharrean, zalantzak argitzea eta kontsultak egitea izango dira helburu nagusiak, alegia, egunerokoan gertatzen diren ezinegonei erantzutea.

Formatzailea: Iñi Etxezarreta Toca (Eihera Koop. Elk. Txikia)

Hizkuntza: Euskara


Noiz: Lehenengo saioa urriaren 16an, gainerako saioak abenduan, otsailean eta maiatzean izango dira, baina partaideen artean erabakiko dira datak.

Ordutegia: Osteguna, 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Iraupena: 4 saio, 8 ordu

Prezioa: Doan



BOTEREGABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Herria eta P.K.	
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? ☐ BAI ☐ EZ

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Nola? ☐ Whatsapp ☐ Korreo elektronikoz

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

2025eko en (e)an

Sinadura:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:


☐ 1. BOTEREAREN ERREBISIO ETA HAUSNARKETARAKO GIZONEN ESPAZIOA

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? ☐ BAI ☐ EZ

Zein motatakoa?

Hautzaindegi zerbitzurik behar duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.



emakumeen txokoko
zerbitzu, ekimen, tailer iraunkor
eta askotariko jarduerak

PARTE-HARTZE, SENTSIBILIZAZIO ETA INTEGRAZIORAKO EKIMENAK

Parekidetasuna bultzatzeko askotariko ekintzak antolatzen ditugu; hitzaldiak, kultura-jarduerak, tailerrak, zinema-emanaldiak... Publiko zabalari, pertsona orori irekita dauden ekimenak dira (hala aipatzen ez bada, behintzat).

EKIMENAK

LIBURU AURKEZPENA: “(MIN)BIZI”

Elena Guineak idatzitako (Min)bizi lana bere bularreko minbiziarekin izandako bizipenak jasotzen ditu, eta gaixotasun horri buruzko hainbat kontakizun bildu ditu.

Izan Inurri elkarteak izan du bidelagun, minbiziaren laguntza, prestakuntza eta zabalkundea feminismo eta eraldaketaren ikuspegitik lantzen duen erakundea.

Bideratzailea: Elena Guinea

Hizkuntza: Euskara

Eguna eta ordutegia: Urriak 22, asteazkena

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

JARDUNALDIAK: “KONTUAN HARTZEKO KONTATUA. LGTBIQ+ MEMORIA ETA ERREPARAZIO JARDUNALDIAK”

Azpeitiko LGTBIQ+ memorian eta erreparazioan sakontzeko jardunaldiak dira.

Eihera kooperatibarekin elkarlanean antolatutako ekimena izango da eta egitarau oparoa izango du. Horien helburua da beste toki batzuetan egindako ekimenak eta esperientziak ezagutzea, jasotzea eta partekatzea, baita LGTBIQ+ politikak politika publiko bezala kokatzea ere. Horretaz gain, gozamenerako, festarako eta ospakizunerako tarteak ere egongo da.

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Urriak 4, larunbata

Ordutegia: Egun osoa

Lekua: Azoka plaza gaineko aretoa eta Sanagustin elkargunean

Prezioa: Landunak 6€ (bazkaririk gabe) eta 15€ (bazkariarekin) /

Langabeak, ikasleak eta pentsionistak doan (bazkaririk gabe) eta 8€ (bazkariarekin)

Izen ematea: Irailaren 1etik 26ra, Emakumeen Txokoan

emakumetxokoa@azpeitia.eus | 688 751 000

IKASTARO IRAUNKORRAK ETA PARTE-HARTZE TALDEAK

1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU

Ainhoa Aldazabal Gallastegui naiz. Euskal filologia ikasi nuen, baina paradoxa bada ere, irakurtzeari utzi nion. Skolastika ezagutu nuenean, berriro piztu zitzaidan irakurtzeko gogo, plazera eta zaletasuna. Bi pasio horiek batuz, nire ofizioa sortu dut: literatura eta feminismoa.

Ikasturte honetan, berrikuntza gisa, hiru saioetara liburuen idazleak etorriko dira. Bisita hauek aukera paregabea eskainiko dute egileekin solasean aritzeko eta haien lanetan sakontzeko, horrela gure esperientzia literarioa aberastuz eta irakurzaletasuna sustatuz.

Formatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegui

Hizkuntza: Euskara

Noiz: Urriak 23, azaroak 20, abenduak 18, urtarrilak 22, otsailak 19, martxoak 19, apirilak 23, maiatzak 21 eta ekainak 18.

Ordutegia: Ostegunetan, hilean behin, 17:30etik 19:30era

Iraupena: 9 saio, 18 ordu

Prezioa: 21,6€ Azpeitian erroldatutakoentzat / 26,1€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

*Izena emandakoan, harreratik pasatu liburura jasotzera

**Izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago

2. EMPALABRAMIENTO

Este es un taller formativo en español y euskera para el empoderamiento de las mujeres donde se fomentarán las habilidades personales y funcionales de cada una de nosotras. Aunque esté centrado en la alfabetización y nivel básico de castellano, se adapta constantemente a las necesidades y niveles del grupo, trabajando de esta manera diversos temas. Además, se ofrecen herramientas para trabajar en colectivo y aprender las unas con las otras.


Formadora: Nerea Del Campo

Idioma: Castellano

Cuándo: Lunes, miércoles y viernes

Horario: De 10:00 a 12:00

Precio: Gratuito



PARTE HARTZE GUNEETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Herria eta P.K.	
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan? ☐ BAI ☐ EZ

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Nola? ☐ Whatsapp ☐ Korreo elektronikoz

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

2025eko en (e)an

Sinadura:

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

- ☐ 1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU
- ☐ 2. EMPALABRAMIENTO

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik? ☐ BAI ☐ EZ

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu? ☐ BAI ☐ EZ

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.



Zerbitzu eta baliabide feministak

Parekidetasunaren balioekin bat egiten duten hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu. Horien guztien helburua emakumeen ahalduzuean eragitea eta jendartearekiko ikuspegi kritikoa garatzea da. Askotariko aholkularitza zerbitzuak, arreta pertsonalizatua, baliabide feministen maileguak eta abar aurkitu ditzakezue Emakumeen Txokoa. Zerbitzu guztiak konfidentzialak, profesionalak eta doakoak dira.

HARRERA ETA INFORMAZIOA

Emakumeei zuzendutako zerbitzuei buruzko informazioa. Indarkeria matxista kasuetarako zerbitzuen informazioa. Protokolo eta jarraibideen aholkularitza. Herriko parekidetasunerako baliabideen informazioa. Izen emateak. Gela eskaerak. Hitzorduak...

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 19:00etara eta ostiralak 9:00etatik 13:00etara

GUNE INFORMALA

Liburutegi feminista
Kontsultarako gunea
Berdintasun gaietan murgiltzeko interneterako sarbidea
Saretzeko eta egoteko gunea

LIBURUTEGI FEMINISTA

Liburu kontsultak
Liburu maileguak
Ikus entzunezkoen maileguak

*Maileguak harreran egin daitezke

ERREMINTA MAILEGUA

Etxeko lan txikietarako erreminta maileguak

*Maileguak harreran egin daitezke



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Prozesu judizialen inguruko informazioa eta horien inguruko aholkularitza feminista eskaintzen duen zerbitzua da. Emakumeek beraien prozesuetan autonomia eta ahalduntzea garatzeko tresnak eskaintzen dira. Askotariko gaiak jorratzen dira.



PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ


LARDAXKA: SEXU, GENERO ETA BIKOTE AHOLKULARITZA

Sexuaren, generoaren eta sexuen arteko harremanen inguruko ezinegonak, zalantzak eta zailtasunak argitzeko zerbitzua da. Herritar orori zuzenduta dago eta banaka, bikotean zein kolektiboan erantzungo da: aurrez aurre, telefonoz edo era telematikoan.



PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ

¿CÓMO ESCANEAR UN CÓDIGO QR?



AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO FEMINISTA

LGTBIQ+ pertsonen eta emakumeen bideratutako aholkularitza psikologiko espezializatua da. Zerbitzua ikuspegi feministatik egiten da, ahalduz indibidual zein kolektiboa helburu izanik.

Alde batetik, LGTBIQ+ pertsonen beraien sexu-genero identitateagatik edo orientazioagatik bizi (izan) dituzten gatazkak eta horiek sortutako ondorez lantzeko aukera eskaintzen da. Bestetik, emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunak sortzen dituzten genero ondorez lantzeko gunea ere bada.

*Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen zuzendua.

- Aholkularitza guztietarako aurrez hitzordua eskatu behar da Emakumeen Txokora edo 688 751 000 telefonora deituta
- Online bidezko kontsulta egiteko aukera.

indarkeria matxista kasu bide laguntza

Eguno jendartean emakumeek emakume izateagatik eta LGTBIQ+ pertsonen haien sexu identitateagatik edota orientazioagatik indarkeria matxista pairatzen dugula jakina da. Askotariko indarkeria mota jaso ditzakegu, besteak beste, genero-indarkeria, familia barruko indarkeria sexista, sexu-indarkeria edota jazarpen sexuala. Indarkeriak forma asko har ditzake eta era ezberdinetan eman ohi da bortizkeria hori: psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa, soziala...

Indarkeria mota eta forma horiei guztiei aurre egin badiozu noizbait, aurre egiten ari bazara edo egoera horretan dagoen norbait ezagutzen baduzu, babesleku emozional eta sozialerako espazioa dugu Emakumeen Txokora. Maila indibidualetik harago, kolektiboan elkar zaintzeko espazioa, alegia.

Informazio gehiago beharko bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan.

